



Zezenzaleen txangoa Salamancara



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajak, industriadak...
- Jaurritzearen dirulaguntzen transakzioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborista
- Kontabilitateari
- Asegururak

Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

**San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR**



**Mutiola, 6 behea
(hilerriaren ondoan)
943 702428**

**EGUNEROKO
ESKAITZAK
Zure Zerbitzura**



**MUTIOLA
HARATEGIA**

**ORAIN
KARLOSEKIN**



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKTETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnos: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Eibarko Pedrucho

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

EZMEN.- Ezetza, ezezkoa. "Lehelengo emon zetsan baimena, eta gero ezmena".

EZPALA BAIÑO ARGALAGUA.- Oso argala, iharra. "Bata zan ezpala baiño argalagua, bestiak, barriz, Gorbeian itxurako ipur-mamiñak eukazan".

ESKUTITZAK

ESKERRAK KLUB DEPORTIBOARI

Lagun Taldea Eibarko Atzeratuen Elkartek eskerak eman nahi dizkio Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeari gure taldearekin erakutsitako begirunearengatik, aurreko azaroaren 1eko domekan, jardunaldi mikologikoetako azken egunean, jasotako dirua guri eman ziguten-eta.

LAGUN TALDEA

30 URTEZ... EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

1979. urteko azaroaren 4an "Euskararik gabe, Euskal Herririk ez" lelopean ekin zion bideari Euskal Herrian Euskaraz elkartek. Egun hartan, euskaldunok osatzen dugun komunitatea eta lurraldea aintzat harturik, oraindik gure helburu izaten jarraitzen duena plazaratu zen: Euskal Herri euskalduna erdiesteia eta, horretarako, izaera aldarrikatzailea eta borrokatazailera izatea.

Eragile euskaltzaleak 30 urte daramatza Euskal Herria berreuskalduntzeko bidean urratsak ematen; 30 urte luze, euskaldunon hizkuntza eskubideen aurkako erasoak salatzen, euskararen normalizazio prozesuan akuilu lana egiten, euskaraz bizitzeko hautua hedatzen eta herritarrei ibilbide horretara

atxikitzeko dinamikak eta espazioak eskaintzen. Hala eta guztiz ere, orain dela 30 urte EHE sortzera eraman zuten funtsezko arrazoiak arnas betean diraute egun, tamalez.

Hemendik aurrera, EHE dinamika asimilazio prozesuari aurre egitean eta Euskal Herria berreuskalduntzean kontzentratuko da. Horretarako lan ildo nagusi bi markatu dira: batetik, normalizazio eta hizkuntzaren aurkako zapalkuntzari aurre egin eta erantzutea; eta, bestetik, euskaraz biziko den herriaren bidean egitasmo zein dinamikak eraikitzea, elkarlana bultzatuz. Ildo horretan, azaroaren 23an Ezabaketa Asteari ekingo diogu. Ekimen horrekin, Euskal Herriko herri eta auzoetatik hizkuntza eskubideen zapalketari aurre egingo diogu. Eta, Eibarren ere, euskaraz bizitzeko ditugun ezintasunei aurre egin behar diegu; dagozkigun eskubideak borrokatu behar ditugu euskaraz biziko den herrirantz, Eibarrerantz, gerturatzeko. Horregatik, azaroaren 23tik 29ra eskubide urraketak salatzeraz eta markatzera animatu nahi ditugu euskaltzale guztiak. Euskaraz bizi nahi badugu, norbanako bakoitzetik hasita baina guztiok batera ekin behar baitiogu, urratsez urrats, Euskal Herri euskaldunaren bideari.

EIBARKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Rodolfo Ares Herrizaingo sailburuaren arabera, Jaurlaritzak urtero ETArri aurre egiteko 225 milioi euro inguru gastatzen ditu, etxebizitza sustatzeko politikan baino gehiago; aurtengo aurrekontuetan 215 milioi euro zeuden etxebizitza eta hirigintza sustatzeko. Datorren urterako, segurtasun pribatuan %50 gehiago gastatuko du, sail osoaren kontuak handituz. Etxebizitzan, aldiz, iaz baino 30 milioi gutxiago izango dira"

(Ivan Santamaria, kazetaria)

"Gazta alde batera lagata, artzaintza inoiz egon den egoerarik okerrenean dago. Arkumeak orain dela 25 urteko prezioan dihardugu saltzen, artilea ez da ordaintzen, esnea ere ez dakigu jasotzen jarraituko duten... Oso egoera kritikoa dago artzaintza eta artalde asko kentzen dihardute. Gaztari dagokionez, Idiazabal barruan gaudenok orain arte nahiko ondo gaude; baina gazta egiten ez duen artzainak etorkizun zaila du"

(Iñaki Ansola, Elgoibarko Mausitxako artzaina)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

KALEKO SALMENTARAKO BAIMENAK

Eguazteneroko kale-azokako saltokiak jartzeko baimena beste urtebetez luzatzeko eskaerak egiteko epea 2009ko azaroaren 18tik abenduaren 9ra bitartekoa izango da. Eskae-
rak Pegoran aurkeztu behar dira, horretarako orria behar bezala beteta, eskatzailearen NAN edo egoitza-baimenaren fotokopiarekin, karnet tamainako argazkiarekin eta Gizarte Segurantzaren autonomo moduan alta ematearen azken frogagiriarekin batera.

BESTIE ERE BAT AYRA CARDAN-EN

Itziariko industrialdean da goen Ayra Cardan enpresak ERE berria aurkeztu du 51 beharginentzat. Orain dela hilabete aurretik zuen espedientea atzera bota zuen arren, enpresak bere 174 beharginetatik 51 kaleratzeko proposamena aurkeztu berri du.

ARMERIAKOEN URTEKO BATZARRA

Armeria Eskolako Ikasleen Gurasoen Elkarteak hila-
ren 17an egingo du urteko batzarra, 19.00etatik aurrera Ikasle Ohien Elkartearen egoitza hasiko den ekitaldian. Azken urteotako martxari jarraituta, ekitaldian bertan maila bakoitzeko ikasle onenei saria emango diete. Gainera, batzarrera joandakoen artean net-bookaren zozketa egingo dute.

Maixak bere hausnarketak jakitera eman ditu

MAIXAK, EIBARKO HERRITARREN PARTE-HARTZE MAHAIK, UZTAILETIK HONA EGINDAKO HAUSNARKETEN BERRI eman zuen eguaztenean prentsaurrekoan. MAIXA osatzen duten lan-talde ezberdinek txostena prestatu dute euren egindako inkesta, Plan Orokorrean eta Agenda 21-ean oinarrituta, eta hausnarketa Udalari luzatzea da euren nahia.

Udalari politika parte-hartzaileak erabiltzeko eskaera egiten diote eta horretan dihardute lanean. *"Orain arte ondo jaso gaituzte Udalean eta gai konkretuetan aurrera goaz"*, aipatu zuen Felix Errasti MAIXAko kideak. Hala ere, Errebaleko kasuan emango zaio hasiera parte-hartze sakon bati euren ustetan.

Prentsaurrekoan kultura, ekonomia eta industria, gazteria, hirigintza eta ingurumena, eta sail-



katu gabeko beste gaien gainean egindako hausnarketak azaldu zituen MAIXAK. Aipatzekoa da, bestetik, 160 pertsona inguruk osatzen dutela MAIXAren datu-basea eta lan-taldeetan banatzen direla (Hirigintza eta Ingurumena lan-taldean, adibidez, 16 dira).

Torrealdai Egunkaria auziaren inguruan berbetan

EGUNKARIA AUZIAREN NONDIK NORAKOAK AZALTZEN EGON ZEN JOAN MARI TORREALDAI AURREKO ASTEAN, Eibarko Egunkariaren Aldeko Plataformak antolatutako hitzaldian. Torrealdai atxilotzea gertatu zeneko *"une latzak"* gogoan izan zituen hitzaldiaren hasieran eta, jarraian, atxilotetaren ondorioak azaldu zizkien Arrate Kultur Elkartearen batutakoei. Euren bizi-modua goitik behera aldatu dela azaldu zuen Torrealdai, bizi-

tzaren hiru laurdenak epaiketarako defentsa prestatzeko lanetara eskaintzen diote eta. Horrekin batera, bera zein beste atxilotuak euskal kulturagintzatik aldentzea lortu dutela azaldu zuen, *"guk euskal kulturari eman geniezaiokeena eten dute"*. Horrekin batera, auzipe-tuen kontu korronte guztiak blokeatuta daude, 15ean behin sinatzera joan behar dira, etorkizunerako planik ezin dute egin, ezta Espainiako mugetatik kanpora irten ere.


Audientzia Nazionalak Egunkariaren inguruko auzi nagusia datorren hilean epaitzeko asmoaren aurrean, herritarrei orain arte erakutsi dieten babes eta laguntza erakusten jarraitzeko eskatu zuen hitzaldia Torrealdai.

Laguntza-bonuak eta kamisetak

Izan ere, epaiketaren inguruan Bilbon manifestazio nazionala egiteko asmoa dago eta bertara agertzeko eskatu zion jendeari. Eibartik manifestaziora joateko autobusak antolatuko dira eta dena zehazten doan heinean ...eta kito!ren bitartez informazioa zabaltzen joango da. Horrez gain, Euskara Elkartearen egoitza (Urkizu, 11 solairuartea) 10 euroko laguntza-bonuak eta kamisetak (10 eurotan) daude salgai, lagundu nahi duenarentzat.

Wi Fi-a herrian ipintzeko asmoa

AZKEN UDAL HAUTESKUNDEETAN AGINDUTAKOARI JARRAITUTA, UDALAK EIBAR OSOAN INTERNETERAKO WI FI SAREA ezartzeko bere asmoari eusten dio. Herritar guztiei interneterako doaneko sarbidea eskaini ahal izateko proiektua gauzatzeak 320.000 euroko aurrekontua behar duela aurreikusitako eta, horregatik, Madrilgo gobernuari proiektua garatzeko diru-laguntzak eskatuko dizkiote. Izan ere, 2010. urterako Madrilgo agintariak prestatzen diharduten E Plan berriaz baliatu nahi dute. Dena ondo bidean, datorren urtean herri osoan Wi Fi konexioa izatea errealitate bihurtzeko esperantza dute udal agintariak.



Ehiza eta ardoa protagonista Krabelinen

ARRATEKO KRABELIN JATETXEKO MIREIA ALONSO ETI AURRERAKO BARIKUAN AURKEZTU ZITUZTEN 6. MARI-DAJE JARDUNALDIAK. Aurreko astean hasi eta azaroko barixaku guztietan afari bereziak eskainiko dituzte Krabelinen, ehizarekin osatutako menuak eta arandangik ezagunetako ardoak uztartuta. Lehenengo jardunaldian Joxean Eizmendi (Illarra jatetxea) eta Roberto Ruiz (Frontón de Tolosa) sukaldariek jardun zuten afaria



Odriozola eta Alonso, aurreko barixakuko aurkezpenean. / S. HERNANDEZ

prestatzen. Jatekoari laguntzeko, berriz, Muga arandangikoko ardo bereziak eskaini zituzten.

Gaur gauean, berriz, López de Heredia Viña Tandoniako ardoen txanda izango da.

Oier
San Martin



In corpore sano

Krisi garai honetan, denok lan mundura begira gabiltzala, ez guke osasuna alde batera laga behar. Gure lanpostutik inguruko gertakizunak ikusteko lepoa luzatzen ari gara egunero.

Alde batera eta bestera begiratze horrek lepoko mina baino, buruko mina ekartzen digu. Urduritasunak, zalantzak, egonkortasun ezak, ... lepoa luzatu bai, baina buruko mina da ekartzen diguna.

Sasoi onak ez diren honetan, lasaitasun tarteak topatu behar dira aurrera egin nahi bada.

Izan ere, jende asko dabil inguruan lanean ordu gehiago sartu ahal izateko gorputza zaintzeari laga diona. Nire ustez, horrek epe laburrekoa bakarrik konpontzen du,

biharkoa alde batera lagata.

Izan ere, gorputza zaintzen ez badugu, gaur edo bihar lepoko mina izango da gure buruko mina. Gauzak horrela,

eta krisiari (eta bizitzaren erronkari) aurre egiteko, gure eguneroko agenda optimizatu dezagun, lana hobe antolatu, lana hobe egiteko eta aisialdiari eta kirolari tarte bat eginez.

Ezin da dena presaka egin, ez eta egunero presaka ibili.

Hau ez da lasterketa motz horietako bat. Maratoia baino luzeagoa da.

Beraz, ahal duenak egunero ordu erdiz ibili dadila (autoa alde batera uzteko bada gainera, hobe), edo kiroldegiko igerilekura hurbildu dadila.

Mendian bueltatxo bat asteburuetan, bizikletari hautsa kendu, kiroldegiko programaren batean hasi edota jarraitu... azken finean, burua lantzeko gorputza prest izan.

Merkatarientzat berrikuntza foroa



Merkatariei zuzendutako jardunaldi bat. / ARTXIBOA

ASTELEHENEAN, 14.30-ETATIK AURRERA MERKATARIEI ZUZENDUTAKO BERRIKUNTZA FOROA HARTUKO DU PORTALEAK. Debegesak antolatutako jardunaldiaren helburu nagusiak, "enpresak berrikuntzarekiko duen egoera eta profilari buruzko hausnarketarako elkar-puntua izatea eta berrikuntzarekin zerikusia duten esperientziak partekatzeko aukera eskaintzea" direla diote antolatzaileek. Parte-hartzea doan da; hala ere, joan nahi duenak 943820110 telefono zenbakira deitu edo pymes@debegesa.com helbidera idatzi dezake.

San Kristobalgo merkatu txikia

DOMEKAN EGIN ZEN LEHENENGOZ SAN KRISTOBALGO AUZOKIDEEN EKIMENEZ SORTUTAKO AZOKA. Eguraldiak asko lagundu ez bazien ere, goiz osoan egon zen martxan erabilitako gauzen salmentarako azoka, Ipuruako bolatokian. Antolatzaileek aurretzean ere azoka martxan ipintzeko asmoa dute, hilean behin (hil bakoitzeko bigarren domekan), 10.00etatik 14.00etara.



Denetarik material erabilgarria izan zen merkatu txikian. / MAIALEN BELAUSTEGI

Herriko bost ikastetxe berritzeko beharrak

UDALAK 180.000 EURO ERABILI DITU HAINBAT IKASTETXETAN EGIN BEHARRKO KONPONKETA BATZUK ORDAINTEKO. Arrateko Andra Mari (Urki), Amaña, San Andres eta Urkizu herri ikastetxeetan argindar instalazioak goitiki behera aldatu dituzte, gaur egun indarrean dagoen araudira egokitzeko. Lau lan

horiek 154.000 euroko aurrekontua izan dute eta Electricidad Perosanz enpresakoek egin dituzte. Bestalde, Federico Mayo (Argatxa) ikastetxean, segurtasun neurriak betetze aldera, ikastetxe barruan zegoen eskailera bat eraitsi eta berria egin dute. GTE enpresak egindako beharrak 26.000 euroko aurrekontua izan du.

Estaziñua barritu ebela 100 urte

asteko
3.300
datua

Iagun hartu ditu Eibarko Industriaren Museoak azken 6 hilabeteotan, bigarren fasea zabaldu zutenetik. Bisitatu dutenen %39 eibartarrak izan dira, %22 EAEkoak eta %34 estatuko hainbat herritatik etorritakoak. Atzerritarrak %5 izan dira.

ERLOJU GAIÑEKO URTIA ESTAZIÑUA BARRITU ZANEKO URTIA DA ETA, HORREGAITTIK, AURTEN BETETZEN DAN MENDEURRENA EZ DA ESTAZIÑUAREN SORRERAREN INGURUKUA, barrikuntzaren ingurukua baiño. Horrekin konfusiño bat baiño gehixago egon da, baiña Eusko Tren-en Burdinbidearen Euskal Museoko Juanjo Olai-zolak kontu batzuk ondo argitzen ditu menduurrenaren inguruan idatzitakuan: *"Geltokiko fatxada nagusixaren goiko aldian erloju bat dago eta erloju horretan 1909 urtia dago zenbaki haundixetan idatzitta; hori ikusitta batzuk uste dabe eraikiña urte hartan eraiki zala, baiña armagiñen herrixa ziharkatzen daben trenbidia askoz lehenago inaugurau zan, 1887ko iraillaren 17xan hain zuzen be. Sasoi hartako egunkarixetan agertzen danez, Maria Cristina de Habsburgo Lorena erregiña erregentiak burutu eban ekitaldixa. Fetxen artian daguan alde hori dala eta, batzuk pentsau izan dabe hasieran Eibarrek ez zekala geltoki propiorik, eta herrixaren premiñak betetzen zittuan gel-*



Pasodoblia entzuteko aukeria izango da Coliseoan barrikuntza gogoratzeko. / ARTXIBOA

toki bakarra Maltzagakua zala. Ez da holan, iñundik iñora be!"

Pasodobiak domeka eguardirako

Mendeurrena ospatzeko asmuarekin, Cielito Musika bandakua pasodoble kontzertua preparau dabe domekarako. 12.30xetatik aurrera Coliseo antzokixan pasodoble ezagunak entzuteko aukeria egongo da. Bestiak beste, Agüero, Manolete, El Cordobés, El Gato Montés, Ciudad de Eibar, Tercio de Quitas, La Puerta Grande, La Entrada, Francisco Alegre, Domingo Ortega, gallito, Xuxito, Ayamonte, Marcial eta Dauder moduko piezak osatu-

ko dabe kontzertuko programaziñua.

Zigillu-markatzekua Exfibarrerako

Arrate Filatelia Elkarteak urtero antolatzen daben Exfibar erakusketiak 40 urte beteko ditte aurten eta ediziño honetan Eibarko tren geltokixaren birmoldaketia goguan izan dabe, berari eskindutako zigillu-markatzekua etarata. Gaiñera, Galiziatik eta Andaluziatik aillegauko diran trenbidiarekin lotutako seillu kolekziñuak ikusgai ipiñiko ditte azaruaren 22xan Portalean zabalduko daben erakusketan.

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL



Bulego altzariak eta materiala
PAPERDENDA

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

AKONDIA



Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^a Jesus Blanco
Bittor Sarasketa, 12
☎ 943 12 74 15

Izadi



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzatarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

02441

...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA



Loteria hartzailen artean, abenduaren 16an GABON-OTARRA zozketatuko da

salgai duzu:

- Mujika harategia
- Urkiñu prentsa
- Bolintxo "Ibarkurutze"
- Zabaleta okindegia
- Narrua konplementuak
- San Andres gozotegia
- Askasibar kirolak
- Kultu taberna
- Valenciaga jantzidenda
- Correos,
- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Untzaga prentsa
- Dibutec fotokopiadenda



A gripearen kontrako txertaketa

ASTELEHENEAN ABIATUKO DA A GRIPEARI AURRE EGITEKO TXERTAKETA KANPAINA EAE-N. OSAKIDE-TZAK 463.000 DOSI IPINTZEA aurreikusi du, gripea hartzeko arriskurik handiena dutenekin hasita: osasun arloan zein zaharrek beharrezan dauden 50.000 bat lagunek zein herritarrentzat ezinbestekoak diren lanbideetan (poliziak, suhiltzaileak, anbulantzia gidariak...) dihardute-

nek osatzen dute arrisku-taldea, gaixo kronikoekin (380.000 inguru) batera. Gaixo kronikotzat hartzen dira odol eta arnas sistemetako gaixoak, diabetikoak, giltzurrun-askiesa dutenak, obesitate morbida dutenak, gibelko gaixotasunak dituztenak edo defentsak murriztuta dutenak. Haurdun dauden emakumeek apur bat gehiago itxaron beharko dute, txerto bereziak ailegatu arte.



Tekniker, olio biodegradagarrien alde

PETROLIOTIK ERATORRITAKO OLIOEK INDUSTRIARI ES-KAINTZEN DIZKIOTENAK BAINO PRESTAZIO HOBEAK ESKAINIKO DITUZTEN OLIO BIODEGRADAGARRIEN sorkuntzan beharrezan dihardu Tekniker-IK4 ikerkuntza zentruak. Gaur egun Europa erabiltzen diren lubrifikatzaileen %95 ez dira biodegradagarriak, ikerkuntza zentruak berak aditzera eman duenez: *“Espainian urtebeteko epean milioi erdi tona kontsumitzen dira eta horiek dira ibai-kutsaduraren %40aren eragileak. Beraz, eta datuei begira, ingurumenarekin ondo konponduko den lubrifikatzaile-sorta berri garatzearen garrantzia begibistakoa da”*. Eibarko zentruak teknologia jasangarriaren esparruan ikerkuntza linea zabala garatzen dihardu, Espainiako gobernuak finantziatutako Biovesin proiektuaren testuinguruan.

anzorik anzo



Errebalgo lurzoruaren salmentaren inguruan

Ezker Batua-Aralarrek Errebalgo lurzoruaren salmenta *“merke-aldi-prezioan”* egindakoa izan zela berretsi du, komunikabideetara helarazitako oharrean. Koalizioko ordezkarien berbetan, *“kobratu beharrekoa baino %60 gutxiago jaso zen eta, hori dela erakusteko, jarraian hainbat azalpen emango ditugu”*. Lehenengo puntuan %10eko monetarizazioari erreparatzen diote: *“Teknikariek baloratutako merkataritza zentruaren balioa 24.364.737 eurokoa baldin bada, %10eko monetarizazioari 465.923 euro dagozkie. Baina benetako balioa, merkatukoa, 40 milioi eurokoa da (askoz ere garaje gehiago egingo direlako). %40ko beherapena dago hor”*. Lizitazio balioan izandako beherapena beste horrenbestekoa izan dela gaineratzen dute. Lurzoruaren balioaz, berriz, honakoa diote: *“Merkataritza zentruaren 24.364.737 euroko balioarekin batera salmenta-prezioa 3.552.000 eurotan ezarri bazuten eta benetan merkatuan hartuko lukeen prezioa 40 milioi eurokoa bada, %64ko beherapena egon da. 7.663.407 euro kobratu beharrean, 4.667.923 euro kobratu ziren, beraz”*.

eibar kalea

Apalategi

Azitainetik beherako bidean, Eltzartzaganeko zubi berreraikia duen errotondan hasten da Apalategi auzoa. N-634 errepidearen ibilbideari jarraitzen dio kaleak, Maltzagara bitartean. Eraikin gehienak errepidearen albo bietara dauden lantegiak dira.

Pegora kopurua: 7. Erroldatutakoak: 11.



Laburrak, baina indartsuak. Eibarko X. Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiak Espainiako estatu osoko lanak jasoko ditu datorren astean zehar. Astelehenean hasiko da eta zapatuan banatuko dira sariak. Bitartean, laburmetraiak ikusgai egongo dira Portalean. Laburmetrai indartsuak.

Alfonbra gorria Portalean

Urteik urtera Asier Errasti Laburmetrai Jaialdiaren arrakasta gora doa. Hamar urte pasa dira lehen edizioa egin zenetik eta ez da bakarrik gero eta jende gehiagok parte hartzen duela: gero eta hedatuago dagoen jaialdia da. Estatu espainiar osoko lanak jaso dituzte antolatzaileek aurtengo edizioan. Guztira jasotako 166 lanak *"Kimuaketik (Eusko Jaurlaritzaren ekimena), Espainia osoko laburmetraiak baten dituen Lolitas Peliculitas ekoizpen-etxetik, Madrileko Promofestetik, Extremadurako Jara jaialditik, Logroñotik, Asturiasetik, Burgosetik, Avilatik, Iruñeatik eta, batez ere, Madril eta Bartzelonatik heldu dira"*, Rosa Ares antolatzailearen berbetan. Horiez gain, Eibarko lau ordezkariak ere laburmetraiak aurkeztu dituztela: *"Gazteak dira eta badago pare bat lan nahiko onak direnak"*.

Sari berria

Jaialdia astelehenean hasiko da, azaroaren 16an, Portalean 20.30etan. *"Lekuz aldatu behar izan dugu jaialdia, Coliseoan*

zinea jarri baitute orain", dio Aresek. Leku aldaketak ordu aldaketa ere ekarri du, aurrera egin baita lehengoarekin alderatuz, *"eta kezkatuta gaude Portaleako obrekin, kanpokoek arazoak izan ditzaketelako atea aurkitzeko"*, diote.

Jaialdian aurkeztu diren 166 lanetatik, aukeratutako batzuk ikusi ahal izango dira eta horietatik aukeratutako beste batzuk izango dira saria lortu ahal izango dutenak. Horrela, zapatuan, hilaren 21ean, Portalean egingo da sari-banaketa ekitaldia, 19.30etatik aurrera.

Berritasun moduan, jaialdiak sari propioa izango du aurtengo edizioan. *"Orain arte Alfa Artek egindako zerbait ematen genuen saritzat. Oso politak ziren garaikurrak, baina zerbait propioa nahi genuen; beraz, kameren diafragma oinarritutako zerbait izango da banatuko dena orain"*. Hala ere, ez da irabazleek etxera eramango duten sari bakarra. Euskara eta gaztelekuzko fikzio-lan eta animazio-lanetako irabazleek 800 euro eskuratuko dituzte; Eibarko



onenak, bestalde, 600 euro. *"Ez da diru asko, baina tira. Ondoren irabazleei soziedade batera lagundu eta hemengo jakiak eskainiko zaizkie"*. Hezkuntza Esparruan, bestetik, logelak egongo dira parte-hartzaileentzat.

Telesailtako aktoreak

"Uste badugu inork ez duela saria merezi, ez dugu eman go", aipatzen du Rosa Aresek. Hala ere, ikusitakoaren arabera, Rosak dio aurreko edizioekin alderatuz laburmetraien kalitateari eutsiko diotela aurten ere. Lan batzuetan, gainera, telesailtari diharduten aktoreek

egiten dute lan, *"eta hori igaritzen da azken emaitzan. Besteak ere ondo daude; gainera, gidoi aldetik kolokan badago, laburmetraia hori ez du aktore batek salbatuko"*.

Guztien ahotan krisi ekonomikoa badago ere, Rosaren arabera ez da gai hori asko jorratu aurkeztutako lanetan. *"Bikoteen arteko erlazioak lantzen dira, batez ere. Dokumental asko jaso ditugu baita, oso gogorak eta oso ondo eginak. Bestetik, istorio absurduak ere badaude, barrea eragiten dizutenak"*. Laburra izanda ere, maila handiko alfonbra gorria izango du Portaleak.




Delicatessen
DENDA BERRIA
Gaurtik aurrera zuekin

ARRAGUETA, 14 - behea
Tel. 943 568543


Harrapakariz bete dira mendixak azken aldixan. Eta ez, ez dira animalia primitibuk, perretxiko billa doiazenak baiño. Betidanik juateko ohituria euki dabe asko, beste batzuk ointxe hartu dabe afiziñua. Perretxikuak ondo izkutatu biharko dira harrapatuak ez nahi badabe izan.

Perretxikotara juatia moda bihurtu al da?



ANA OBANOS
45 urte
banatzaillia

Ez dakitt ezer perretxikotara juatian gaiñian eta inguruan be ez dakat iñor juaten danik. Nik perretxikuak jan egitten dittut eta kitto, ezer gehixago. Sekula juan izan naiz mailluki billa, baiña perretxikuak hartzera mendira juatiak iñoiz ez desta interesa sortu.



NAIARA GONZÁLEZ
21 urte
langabia

Ez naiz sekula perretxikotan ibilli. Halanda be, badakat inguruan juateko ohituria daken lagunak eta ointxe buru-belarri dabiz perretxiko billa. Gaiñera, bakotxak bere lekuak dittu eta sekretuan mantentzen dabe beste iñork ez hartzeko hórrek perretxikuok.

ANDRES LUENGO
44 urte
langabia

Ni ez naiz perretxikotara juaten, ez naizelako perretxikuetaz fixo. Ezagutzen dot mendira perretxikotara juaten dan jentia eta begittantzen jata moda bihurtu dala. Ez dakitt, kolokau egitten dabela emoten dau, izan be, horrenbeste jende juaten da... Gaiñera doakua da.



J. ANTONIO KORTABERRIA
71 urte
jubilaua

Nik badakat perretxikotara juateko ohituria, nahiz eta ez doten asko batzen. Betidanik juan izan naiz mendira perretxikotara, urtero-urtero. Halanda be, begittantzen jata moda bihurtu dala, ez dakitt, jubilau gehixago daguzelako izango da.



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

OPTICA BEITU
OPTICA BEITU

Ondo mitzun habete bitzerko

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen dituz:

- Entzumen-aterketa doan
- Probatu audifonok doan 30 egunez
- %20ko deskontua edozein audifono erosterakoan.
- Gainera, erabilzaila izanda, zure audifonoren aterketa doan egin eta pila pakete bat oparituko ditugu.


OPTICA BEITU - JULIAN ETXEBERRIA, 13
20600 ELBAUR - 943 70 02 30
(Bilakatu gurez telefonoz Nazioarteko diru)

Aurreko astelehenian, azaruaren 2xan estrenau eban egoitza barrixa Udal Artxibuak: udaletxe zaharretik Portalera eruan eban, modu probisionalian, eta aurreko astiaz geroztik behin-betiko tokixan zabaldu zittuan atiak, udaletxeiko 4. pisuan. 750 metro karratutan, gela diferentietan banatuta dagozen dokumentuetan gure herriko historia oso-osua jasota dago, edozeiñek konsultatzeko moduan.

Azken hillebetiotan udaletxeko goiko pisuan biharrian jardun dabe, artxiborako egoitza barrixa preparamen eta, azken astiotan Portalean eguan dokumentaziño guztia egoitza barrira eruatzen eta bertan sailkatzen jardun dabe artxiboko bihariñak. Bihar haundixa izan da, baiña emaitzarekin pozik geratu dira.

Eskribautzak, Bergararik bueltan

Gaiñera, oiñ arte Bergaran eguazen 158 kaja ekartzeko



Eibarko ispillurik fidagarriena

denporarik ez dabe galdu, Yolanda Ruiz artxiboko arduradunak azaldu deskun moduan: *“Astelehenian zabaldu genduan artxibo barrixa eta hurrengo egunian Bergararik ekarri genduzen dokumentoz betetako 158 kaja. 1537. urtetik 1866ra bittarterako 3.477 espediente dira, Eibarko Eskribautzak. 2006ko maiatzian siñatu eban Eibar eta Bergararik alkatik dokumentuak gurera ekartzeko hitzarmena, baiña oiñ arte horrek gordetzeko tokirik ez eguanez, eziñ izan dittugu ekarri. Ixa ikertu barik dagozen*

agirixen balixua oso haundixa da. Sasoi batian alkatik lehen instantziako juezaren figura betetzen eban eta eskribanuak auzi guztien barri jasotzen eban, notarixuen pareko biharra eginda. Agirixetan auzi zibil, ejekutibo eta kriminalen barri

emoten dabe eta, horrek irakorritta, Eibarko bizitza politiko, sozial eta ekonomikuaren erretratua topau geinke”.

Artxibo munizipala zeñ aberratsa dan ulertzeko, nahikua da bertan gordetako dokumentuen bolumenari erreparatzia: agiri guztiak bata bestia- ren atzetik, illaran ipiñiz gero, kilometro t'erdiko luzeeria lortuko genduke.

Udaletxiak berak egunero sortzen dittuan idatzixak jasotziaz gain, bestelakuak dagozela azaldu desku arduradu-



nak: “Era guztietako dokumentuak dagoz: maternidadeko fondokuak, damaskinatu eskolako fondokuak... Gaiñera, danak ez dira idatzitakuak, Castriño-Ortuoste fondoko argazkixak, Ojangurenena eta beste batzuk be hamen dagoz, Eibartarren Ahotan proiektuan egin dako grabaziñuak, piskat denetarik dakagu”.

Prostituziñuaren gaiñeko reglamentua

Dokumentaziñua gure herrixa bezain zaharra da eta, artxibuan biharrian diharduenak iñork baiño hobeto dakixen moduan, *“gure gizartiaren islada*



Udal Artxibuan dokumentaziñua jaso eta danon eskura ipintziaz ezeze, agiri zaharren recuperaziñua eta bestelakuak lantzen dittue.
/ S. HERNANDEZ

YOLANDA RUIZ, artxiboko arduraduna

“Artxibua herritar guztiendako zabalik dago”


- Zein da udal artxibo baten funziñua?

Zerbitzua moduren batian definitzarren, Eibarrek sortzen daberen dokumentaziño guztia jasotzen daberen tokixa da eta udala bera bezaiñ zaharra da. Lehelengo agirixak 1548. urtekuak dira, kontzejukuak, baiña artxibua horren aurretik be existitzen zan.

- Zelako jendia etortzen jatzue artxibora?

Orohar, artxibuan hiru erabiltzaille mota harzen dittugu: alde batetik, administraziñuarekin lotutakuak dagoz, udaletxeko bihargiñak-eta; beste alde batetik, ikerketa edo inbestigaziño biharrak egittera etortzen diranak dagoz; eta, hirugarrenik, beste barik, zeozer ikertzeko asmuarekin guregana jotzen daberen herritarrak.


- Halanda be, hirugarren motakuak bestiak baiño askoz gitxiago izango dira, ezta?



Bai, beti egoten dira batzuk, baiña gehixago izatia gustauko litxakigu. Izan be, jende askok pentsatzen dau artxibora etortzeko arrazoi bereziren bat euki bihar dala, baiña ez da hala. Hamen zerbitzu publiko bat eskintzen dogu, Udaleko beste zerbitzuetan egitten daberen modura, eta argi laga nahi dogu artxibua edozeiñendako zabalik daguala. Jendia artxibua erabiltzera animau nahi dogu, horretarako gagoz eta. Gure azken helburua hamen dakagun guztia ezagutzera emotia da.

benetan aberatsa. Adibide bat ipintzarren, San Andres elizako erretablua egitteko kontratua dago, herriko beste edifizio enblematiko askorena...”

Baiña beste izaera bateko agiri kuriosorik ez da falta artxiboko apaletan: “Horrenbeste urtian hamen biharrian jardunda, hamaika kontu bitxi eta interesante ikusi dittut, baiña baten bat aittatzekotan atenziñua



deittu zestan legetik kanpora eguan Mano Negra izeneko alkartekuak Eibarko andra bateri idatzitako kartia, erreskatia eskatzen, edo 1912. urtian idatzitako prostutuziñuaren gaiñeko reglamentua, oso aurrera-koia dalako”.

Datozen 20 urtiotarako prest

Instalaziño barrixak zerbitzua hobetzeko aukeria emon detse artxibuari: “Banaketa barrixari esker, konsultak egittera datozenendako toki berezixa sortu da, iñor trabarik ez egitteko. Gaiñera, agirixen konserbaziñorako baliabidiak be hobiak dira, benetan temperatura jakin bat bihar daberenendako klimatizaziñua gaiñontzekuegandik banatuta egotian, ez da zertan dana alperrik hozten jardun”. Bestalde, datozen 20 urtiotan etorri leikian dokumentaziñorako tokixa be jada pre-paurata dake.

Udal artxibuak beste buleguak zabaltzen daberen ordutegixan zabalduko dittu atiak, astelehenetik barixakura, 09.00etatik 14.00etara eta baita astelehen arratsaldetan be, 16.30etatik 19.15etara.

Asteartero Eibarko alkatiak HAMAIIKA BERBA Irratsaloan orantzungo dizu, eguardiko 12.30etan. Zure keza, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: elbar@herri-irratia.com SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 08 44 zenbakira.

TEEN-
AJEA

“Zure ezkontzako momentu ahaztezinak edo zure gorputza argazkietan dotore islatzea nahi baduzuve hor dago prest Josu Torrealday”. Izan ere, 25 urteko eibartar honek estudioa irekiko du Untzagako dorrean (Kalbetoitik sartu eta lehen pisuan). Bere arteaz gozatzeko www.josutorrealday.com webgunea bisitatu.

JOSU TORREALDAY, argazkilaria: “Argazkia bere kabuz hitz egiteko gauza da”

- Argazkilaritza estudioa irekitzear zaude. Zein lan edo zerbitzu eskainiko dituzu?

Luzerako pentsatuta ditudan proiektu pertsonalez gain, betiko zerbitzuak eskaintzeko asmoa daukat gaztetasunak ematen duen berrizteko gogoarekin. Ezteiak; erreportai sozialak; estudioko erretratuak aktore, modelo edo edozeini; eta abar. Gaur edonork du argazki kamera eta hor markatu behar da ezberdintasuna, zerbait gehiago eskainiz, bai kalitate teknikoa, bai ikuspuntu profesionalagoa.

- Nolako lanak egin dituzu orain arte?

Guggenheim museoan egin nituen karrerako praktikak eta asko lagundu zidan horrek, izan ere, Arte Ederrak ikasi dugunon artean normala da galdera hau egitea: “Eta orain, zer?”. Praktikek neure buruarekiko segurtasuna eman zidaten eta Bartzelonan ikasketak amaitu ostean, lanean hasteko trebeago aurkitu nuen neure burua. Azken urtean Bilboko

estudio batean aritu naiz, ETB 2-ko ‘El calendario del año’ saioan, eta beste arlo batzutan. Orain nire buruarentzat egingo dut lan eta hori positiboa da, nahiz eta batzutan norberarekin ere eztabaidatu behar izan.

- Zer da zuretzako argazkilaritza?

Hizkuntza bat, eta batzutan hobeto espresa naiteke berarekin. Disfrutatu eta disfrutazteko afizio bat, bizimodu bihurtzeko bidean dagoena, inguratzen nauenaren eta nire arteko erlazioa estutzen duen grabazio bat.

- Zer ahalegintzen zara islatzen argazkietan?

Zaila da erantzuten, argazkilaritza arlo asko ukitzen baitira. Argazkiari “eta honek zer esan nahi du?” galdera erantsten zaio. Iruditzen zait ‘artistek’ azalpen larregi ematen dituztela, eta uste dut argazkia kapaz dela bere kabuz hitz egiteko. Ikuslearen ulertzeko eta interpretatzeko ahalmenean dago joko.

KATU



KALE

BIDEBARRIETA, 1

TABERNA

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

I. Gazte Lokalen Txapelketaren finala ate joka

Lau jardunaldiren ostean iritsi da herriko lokalen arteko lehiaketan garailea zein den argitzeko ordua. Lau barixaku izan dira (gaurkoa zenbatuz) lokaletako gazteak nor baino nor aritu direnak, joko ezberdinetan euren trebezia erakutsi dutenak. Datorren zapatuan, azaroak 21, ikusiko da zein den trebeetan trebeena.

Joan den astean mus txapelketak hartu zuen lekua eta gaur Play Stationean arituko dira parte-hartzaileak, SingStar jokoan zehazki, Legarreko lokalen aldamenean 18.30-etan. Parte hartzeko bertara joatea besterik ez dago.

Final nagusia Armeria Eskolan izango da hilaren 21ean

Armeria Eskolan

Final nagusia datorren zapatuan jokatu da, azaroaren 21ean, Armeria Eskolan. 12.00etan ekingo saio jardunaldiari lehiaketa guztien finalekin (futbolina, ping-pong...). Hala ere, finalez gain edonor aritu ahal izango da jolasean. Finalen ostean bazkari lehiaketa egingo da 13.00ean. Makarroi eta tortilak egingo dira (gero bazkalduko direnak), eta parte



Lokalen arteko dinamika eta giro ona sustatzea du helburu txapelketak. / EKHI BELAR

hartu nahi izanez gero azaroak 19ra arte egongo da izena emateko aukera ...eta kitto!-ra deituz (943-200918). 14.00ak eta 14.30ak tartean prestatutakoarekin bazkaria egingo da eta sari banaketari ekingo zaio bazkalostean (bazkari gozoe-nak ere bere saria jasoko du). Bazkaria jaisteko jokoak egingo

dira 16.30etan, eta egunari amaiera emateko kontzertua egongo da 17.30etan.

Aurretik lehiaketan parte hartu ez badute ere, edonor hurbildu daiteke Armeria Eskolara, txapelketa irekia delako, eta lokalen artean dinamika eta giro ona sustatzea delako helburua.

U rriaren 23an eman zitzaion hasiera Eibar I. Gazte Lokalen Txapelketari. Futbolinean aritu ziren orduan gazteak, jai giroan, baloiarekin duten trebezia erakutsiz. Astebete geroago, hilaren 30ean, ping-ponga izan zen lehiarako jolasa. Aipatzekoa da parte-hartzaileek erakutsi zuten maila ona eta kiroltasuna.


Unikoak Euskaltel eta Arsysen

U ni Eibar-Ermua BHIko informatika ikasleek bidaia bi egin zituzten azaroaren 5ean. Informatikako 1. mailako ikasleak Euskaltel enpresan izan ziren eta 2. mailakoak Logroñoiko Arsys enpresan.

Euskaltelek Zamudioko Parke Teknologikoan dituen instalazioak bisitatu zituzten 1. mailakoek. Arreta handiz Inaxio Antoñana telekomunikazio sistemen arduraduna-

ren berbak entzun zituzten hiru ordutan zuntz-optikoaren, telefonia finko eta mugikorren sistemaren, telebista sistemaren eta interneten gainean.

Informatika zikloetako 2. mailakoek, bestetik, Logroñoiko Arsys enpresa bisitatu zuten. ARSYS enpresak Internet arloan egiten du lan; besteak beste, domeinu izenen erregistroa eta web ostatatzea dira bere espezialitateak.



Bisitaldian ikasleek ARSYS enpresak daukan egoitza nagusia ikusi ahal izan zuten. Bertan, mundu osoko enpresek daukate euren web orrialdeak gordeta, batez ere, Espainiakoak, Frantziakoak eta Portugalakoak. Ikasleek, besteak beste, web orrialdeak gordetzeko zein ordenagailu mota erabiltzen diren ikusteko aukera izan zuten. Gaur egun, ARSYS enpresak 220.000 bezero dauzka, 650.000 domeinu izen kudeatuta eta 150.000 web orrialde gordeta. Horrek guztiak Espainiako lehenengo enpresa izatea esan nahi du eta Europa osoan ere enpresa garrantzitsuenetarikoa da.



Adi jarraitu zituzten UNIKO ikasleek bi enpresetako argibideak.

GREMIOEN GIDA



ANTENAK

BALATZ c.a.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK

ulmar
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Beherehazteko etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Fatxadetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
INDUSTRIALIZACION
INSTALACION ELECTRICAS
TELECOMUNICACIONES
INDUSTRIA MANUFACTURERA
PROYECTOS
SERVICIO POSTAL

GARBIKETAK



INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13

Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia



Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I B A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

CRISTALUX
Limpieza



- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com

Tfnoa. eta Faxa:

943 20 65 08

Mobila:

659 58 35 32

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK



*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tallerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615

Mobila 688 609 171



Barrena, 26 - 6. C

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua



- Barne apainketak
- Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak



santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERZATATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza



UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03



MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arrageta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK



AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24



PINTURAS
ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

ADIN TXIKIKO BATEKIN SEXU HARREMANAK IZATEAK, ZEIN ZIGOR DAKAR? ZEREN ARABERA?

Kode Penalak ulertzen du 13 urtetik beherako pertsona batekin izan daitezken sexu harremanak nahitaez ume horren adostasunik gabekoak direla, eta beraz, sexu abusu delitutzat hartzen ditu. Zigorra urtebetetik hiru urte bitarteko gartzela izan daiteke oro har, edo lau urtetik hamarrera bitarteko gartzelakoa baldin eta sexu harremana bagina, uzki edo ahoan



sartzearen bitartez egin denean, edo aipatutako lehen bi sarbideetatik gorputzeko atal bat edo gauza bat sartzearen bitartez egin denean.

Adin horretatik aurrera, 13 urtetik aurrera, delitua izateko, frogatu egin beharko da sexu harremana adostasunik gabea izan dela, edo indarkeria edo larderia erabili direla sexu harreman horiek izateko.



Elena Laka
abokatua

ZEIN ADINEKIN HASTEN DA UME BATEN IRITZIA KONTUTAN IZATEN EPAITEGIAN?

Banaketa edo dibortzio kasuetan, umearen zaintza ezbaian dagoenean, 12 urtetik gorako umei nahitaez entzun egin beharko zaie, eta 12 urtez beherakoei epaileak egoki ikusten badu eta nahikoa juzku baldin badaukate. Adopzio eta harrera kasuetan berriz, 12 urtez gorako ume bat adoptatzeko edo harreran hartzeko orduan, bere adostasuna jasotzea beharrezkoa da.



ADIN TXIKIKO BAT EZKONDU DAITEKE? ZEIN ADINEKIN?

Kode Zibilaren arabera, ezkontzeko adostasuna emateko gai izateko pertsona batek 18 urte izan behar ditu, edo 16 urte izanda, legez emantzipatuta egon behar da. Horietako baldintzaren bat ematen ez bada eta hala ere ezkontza egin egiten bada (adibidez, adina aitortzerakoan gezurra esanda edo agiriren batean adina faltsutzearen bitartez), ezkontza deuseza izango da. Hamazortzi urtez beherako batek edo emantzipatuta ez dagoen batek ezkondu nahi izango balu, epailearen baimeana lortu beharko du horretarako, beti 14 urte baino gehiago baldin baditu. Epaileak, baimeana emateko orduan, adin txikikoari entzun egin beharko dio eta baita bere guraso edo zaintzaileei ere. Justifikatua ikusten badu, baimeana eman dezake 14 urtez gorakoa ezkon dadin.



Zuzenbideari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.

Mendizalea, alpinista, baina baita bidaiaria ere. Alberto Iñurrategik bidaiaria den mendizalearen erreflexio eta kritika egiten du 'Begiz begi' ikus-entzunezkoan. "Autokritika ere da". Portalean izan zen ikusgai eguaztenean. Begiratzen duen mendizalea da, baina baita begiratu dena ere.

ALBERTO IÑURRATEGI, mendizalea: "Mendia ez da gailurra bakarrik"

- Erreflexio edo kritika bat egiten duzu 'Begiz begi' ikus-entzunezkoan, baina zeren gainean hain zuzen ere?

Mendira goazenean hirugarren mundua deritzonera jotzen dugu, eta hirugarren mundu horren begirunez mendizalearen kritika bat da lan hau, bidaiatzen duen horren autokritika.

- Askok aldatu da alpinismoa hasi zinenetik orain arte?

Ni hasi nintzenerako gauza asko aldatu zaizkidan, baina gu hasi ginenetik orain arte ikaragarri aldatu da. Azkenengo 5-8 urteetan aldaketa latza egon da. Badauzkagu lagunak Pakistanen, adibidez, orain arte besteentzat lan egin dutenak eta bidaiaria-agentzia propioa montatu dutenak. Mendiaren inguruan egiten den turismoa ezagutu dute azken 25 urteetan eta esaten digute ezin dutela imajinatu mendebaldetarra zelan aldatu den. Oso exigenteak bihurtu garelako diote, askotan ezin dugula ulertu programa bat ezin dela jarraitu lurjauzi edo elurte handi bat egon delako, ez dugula inprobisaziorako aukerarik uzten. Zertzelada bat da soilik, baina esanguratsua dela uste dut.



Iñurrategik jendea ezagutzeko ere baliatzen ditu bidaiak.

- 'Begiz begi' titulua dauka dokumental-lak. Nola begiratzen diozu 8.000 metro gorako mendi bati?

Errespetuz, berbarene zentzu zabalenean. Garbi eduki behar da 8.000 metro izanagatik mendia ez dela gailurra bakarrik eta bideetan zer ikasi, zer ikusi eta gauza asko daudela. Merezi duten gauzak. Dimentsio horretan hartzen dut mendia. Garrantzitsua da gauza ez egitea gailurra ikusituta, beste ikuspegi batekin joatea.

- Zer sentsazio sentitzen duzu gailurrera iristean?

Nahiko ahaztuta daukat, azkenaldian ez baititut gailur asko egin (barreak). Oso gauza ederra da, nahiz eta jakin espedizioa ez dela hor amaitzen. Edozein modutan, poztasuna gailurrera iristeko moduagatik heltzen da, ez delako berdina modu baldarrean bide normaletik igotzea edo modu finean bide zailetik. Momentu bakoitzean bakoitzak duen mailara ondo egokitzen zaion helburua betetzen bada, hor sentitzen da poza. Bati bide zail batek poza ematen badiot, beste bati bide erraz batek eman dakioke, baina garrantzitsuena duintasunez egitea da.

- Gailurrik aspaldian ez duzu egin, baina alpinismoaren esentzia bizi ahal izan duzu berriki Everesten, Hornbein bidetik igotzen saiatuz. Nolako esperientzia izan da?

Ez zen esperientzia berria, orain dela hiru urte saiatu ginelako egiten. Edozein modutan esperientzia positiboa izan dela esango nuke, nahiz eta gailurrera heltzeko aukerarik ez dugun izan, eskuragarri dagoen helburu bat dela ikusi dugulako. Bueltatzeko gogoa ekarri dut eta seinale ona da hori.

- Alpinismoa egiteko bide berri edo ez hain erabiliak egiten diharduzue Juan Vallejo, Mikel Zabalza eta zuk, besteak beste. Alpinismoaren masifikazioarekin bere xarma galdu dela uste duzu?

Ez dago berrikuntzarako ganora Euskal Herrian, behintzat Himalaiari dagokion akti-



bitate horretan. Gu ere ez gara oso berri-tzaileak, azken finean ez dugu bide berririk zabaldu eta nekez zabalduko dugu baten bat, baina esperientziak eman digun pisuarekin gauzak poliki-poliki eta ahal den modurik garbienean eta politenean egiten saiatzen gara.

- Behar den moduan baloratzen da zuek egiten duzuen?

Orokorrean oker gabiltzala uste dut. Mendizaleen maila daukazun 8.000-koen arabera neurtzen da eta akats handia da hori. Batetik, komunikabide artetik ez dago irizpide zuzenik. Bestetik, mendizaleak ez dauka interes handirik horri buelta emateko, eta bera da lehen interesatua, komunikabideen irizpide falta horren eraginez, mendiko kontuak ematen dituzten moduan ikustea.


- Zein da zure hurrengo helburua?

Oraindik ez daukagu ezer pentsatuta. Garai polita da hego-hemisferiora joateko, baina aurten etxetik kanpo denbora gehiegi eman dudala uste dut eta etxean denbora gehiago egitea tokatzen da.

Usobiaga Munduko Kopako lidergoan

MUNDUKO KOPA AMAITZEKO PROBA BAKARRA GERATZEN DENEAN,

Eibarko eskalatzailea lidergoan dago, 9 puntuko aldearekin Adam Ondra bigarren sailkatuarekiko. Txekiako Brnon jokatutako proban, Patxi Usobiaga 2. postuan sailkatu zen, Jakob Schuberten atzetik, baina Ondrak lan kaskarra egin zuen bere herritarren aurrean eta finalerako ere ez zen sailkatu. Asteburu honetan amaituko da Munduko Kopa, Esloveniako Kranj-en jokatuko den probarekin, eta hor lortu dezake Usobiagak bere hirugarren txapelketa.



Eibar FT, 7. garaipenaren bila

BIDE ZUZENA AURKITU DUTELAKOAN, ANGEL VIADEROK ZUZENTZEN DITUEN mutilak garaipen berri baten bila abiatuko dira Ipuruan domekan, 17.00etatik aurrera, Zamoraren kontra. Garaipena lortuz gero, eibartarrek marka berria ezarriko zuten, inoiz ez baitute lortu hainbeste garaipen jarraian. Sailkapenean ere, goi-goian daude gorri-urdinak, abantaila politarekin.



Herriko judokak Hondarribian

ZAPATUAN HONDARRIBIAN JOKATUTAKO NAZIOARTEKO XVIII. TORNEOAN, Kalamuako lau judoka izan ziren jubencil mailako nesken arteko lehian. Euretatik batek, Judit Otxagabiak urrezko domina eskuratu zuen, Nekane Muguruza 5. postuan sailkatu zen, María Ruiz 7.ean eta atzerago geratu zen Carmen González. Bihar talde berak, beste batzurekin batera, Amurrioko nazioarteko torneoan hartuko du parte eta etzi alebin, benjamin eta infantil mailakoek Arrasateko torneoan jardungo dute.

Ipuruako gimnastikako hiru talde Espainiako txapelketara

EIBARREN JOKATUTAKO TALDEKAKO EUSKADIKO TXAPELKETAREN EMAITZEKIN, Eibarko taldearen hiru ordezkari izango dira Valladoliden abenduaren 9tik 12ra arte Espainiako txapelketaren lehian: infantil, senior eta 1. mailakoa. Azken honek Euskadiko txapela irabazi zuen, Club Donostiren aurretik; senior mailakoa azpitxapeldun geratu zen, Gasteizeko Oskitxoren atzetik; eta infantil mailakoak brontzezkoa lortu zuen, Beti Rítmica eta Donostiren atzetik.

Katu-Kalek Ruibal garaitu zuen saskibaloiko derbian

EZUSTEKOA IZAN ZEN ZAPATUAN IPURUA KIROLDEGIAN JOKATUTAKO EIBARKO TALDE BIEN ARTEKO saskibalo partiduan. Derbia izanda, edozein emaitza eman zitekeen, baina orain arteko ibilbideak Ruibal Alquiler de Vehículos bihurtu zuen faborito; hala ere, Katu-Kalek orain arteko partidurik serioena jokatuz, ia neurketa guztian atzetik joan arren, azkenean aurkaria gainditzea lortu zuen. Azken emaitza 67-58koa izan zen, aurreko hiru laurdenetan gero irabazleak izango zirenak 12-16, 30-31 atsedendian eta 44-46 galtzen joan ondoren. Ikusten denez, partidua oso parekatua izan zen eta azken



laurdenean erabaki zen, batez ere jaurtiketa libreetan Katu-Kalekoek gehiago asmatu zutelako. Irabazleen aldetik, Fito izan zen saskiratzaile onena, 19 punturekin, Alarcón (13), Sierra (12) eta Arizmendiarriguren (10) aurretik; Ruibalen aldetik, Azurmendi izan zen onena beste behin (22 puntu), Sampedro eta Gergorirekin batera (11na puntu).



Tarsicio eta Peñaren autoa Bizkaiko Bakoian.

Argi-ilunak eibartarrentzat Bizkaiko Bakoaren rallyan

LAGUN ARTEAKO RAMON APALANTZA ETA AITZOL LEJARDIREN MITSUBISHIAK IRABAZI ZUEN oso baldintza kaskarretan jokatutako Bizkaiko Bakoaren III. edizioa. Eguraldiak denetarik eskaini zien auto gidariei, txingorra tartean, eta Vilariñotarren Subaruak ere lasterketa bertan behera laga behar izan zuen bigarren tramaon, lehenengo postuan zihoazenean, aquaplaningaren eraginez. Gauzak horrela, Escudería Eibarko Barrueta-Zuazua taldea ere pistatik irten zen istripu ikusgarrian; zorionez, min hartu barik (euren ka-

suan, ezin da gauza bera esan autoari dagokionez). Zorte txarra izan zuten Beristain eta Olalde ere, gurpil bateko torlojuak apurtuta rallya bertan behera laga baitzuten.

Amaitu zutenen artean, Escudería Eibarko onenak Tarsicio eta Peña izan ziren, Ford Escort Cosworth-arekin 11. postuan sailkatuz. Jarraian sailkatu ziren Rodríguez-Agirre (19. postuan), Arrieta-Ituarte (22.ak), De la Fuente-Vigara (37.ak) eta Zalloetxebarria-Outeriño goitia (44.ak). Irten zuten 79 autoetatik, 48k bakarrik lortu zuten helmugara iristea.

Titin eta Gonzalez, lau eta erdikoaren barruan Astelenan



ASTELENAK LAU ETA ERDIAREN TXAPELKETAKO MAILA HANDIKO beste norgehiagoka bat izango du domekako jaialdian, oraingoan azken jardunaldiko irabazleen arteko lehia hartuko duena. Titinek, Julen Retegiri irabazi eta gero, kantxa berean Sebastien Gonzalez izango du aurrean. Irujori irabazi eta gero, Iparraldekoa finale-rako faboritoen artean dago. Jaialdiari hasiera emango dion partiduan, Berasaluze IX.a-Beroiz

eta Aritz Lasa-Pascual bikoteen arteko lehia interesgarria izango da ikusgai. Eta amaitzeko, Capellán-Urberuaga eta Del Rey-Galartza VI.a bikoteen artekoa izango da.

Bestalde, afizionatu mailako partidu bi jokatu dira gaur arratsaldean, 20.15etan hasita, frontoi berean. Kluben Arteko Txapelketakoak izango dira: Deporrek Unamunzagak buruz buru jardungo du eta, jarraian, Arrilaga-Egañak binaka.

121 eibartar Behobia-Donostian

URTETIK URTERA, GERO ETA EIBARTAR GEHIAGOK HARTZEN DU PARTE Behobia-Donostia maratoi erdian. Oraingoan eguraldi latza jasan behar bazuten ere, han izan ziren ehundik gora lagun, tartean Asier Cuevas gure ordekaririk onena eta punta-puntakoekin jardun zuena ia helmugara iritsi arte.

7	Asier Cuevas	1h04'53"	8292	Ignacio Aitor Muguruza	1h41'48"
784	Haritz Uriá	1h19'47"	8301	Rafael Martínez	1h41'49"
857	Eduardo Talán	1h20'11"	8441	Alberto Arakistain	1h42'09"
888	Jon Ibarroño	1h20'26"	8458	Juan Luis Iriondo	1h42'12"
1066	Enrike Acuña	1h21'34"	8556	Iker Urresti	1h42'30"
1656	Mikel Beristain	1h24'04"	8667	Íñigo Trokaloa	1h42'46"
1973	Asier De los Santos	1h25'20"	8747	Miren Gallastegi	1h43'00"
2152	Asier Matute	1h25'58"	8753	Eduardo Uribe	1h43'00"
2296	Aitor Oiarzun	1h26'30"	8867	Enrique Martín	1h43'18"
2557	Íñaki L. Gereñu	1h27'20"	9005	Íñigo Astigarraga	1h43'40"
2586	Aitor Bolinaga	1h27'25"	9141	Emilio Bastida	1h44'02"
2620	Luis M ^o Ugarte	1h27'31"	9222	Joakin Egia	1h44'15"
3052	Xabi Etxaniz	1h28'37"	9277	Luis De Blas	1h44'24"
3108	Igor Errasti	1h28'48"	9356	Oier Cobo	1h44'38"
3182	Juan Jose Larramendi	1h28'59"	9492	Amala Abanzabalegi	1h45'00"
3248	Enrike Zialzeta	1h29'11"	9555	Aitor Zubizarreta	1h45'07"
3264	German Amuategi	1h29'15"	9557	Andoni Izagirre	1h45'11"
3274	Eduardo Oiarzun	1h29'14"	9762	Javier Unamuno	1h45'47"
3275	Liher Prieto	1h29'14"	10106	Haritz Arriaga	1h46'46"
3344	Xabier Arrieta	1h29'24"	10111	Aitor Aranburu	1h46'47"
3367	Andoni Mayo	1h29'28"	10358	Jon Kortabitarte	1h47'24"
3584	Asier Arana	1h29'31"	10377	Fernando Moro	1h47'32"
3472	Alexander Tellería	1h29'45"	10401	Miguel Fernández	1h47'36"
3791	Asier Barberena	1h30'36"	10420	Asier Silva	1h47'40"
3954	Aimar Arakistain	1h31'03"	10570	Juan Galarza	1h48'05"
4165	Fermin Sebastian	1h31'44"	10580	Jon García	1h48'06"
4233	Jorge Carrión	1h31'56"	10631	Ana Iparragirre	1h48'14"
4454	Leandro Luengo	1h32'31"	10651	Jon Etxabe	1h48'18"
4548	Igor Gómez	1h32'47"	10653	Ernesto Etxabe	1h48'18"
4625	Javier Oruezabal	1h32'58"	10719	Ibon Muñoa	1h48'29"
4692	Ibon Martín	1h33'12"	10886	Asier Alzela	1h48'56"
4707	Bittor Urzelai	1h33'14"	10891	Jon Gorosabel	1h48'56"
4739	Tomas Axpe	1h33'19"	11105	Daniel López	1h49'37"
4868	Mikel Prieto	1h33'39"	11205	Ana Ramírez	1h49'57"
4957	Arkaitz Zabala	1h33'51"	11317	Iker González	1h50'19"
5001	Iosu Murua	1h33'57"	11378	Adrian Galán	1h50'32"
5147	Josu Zinkunegi	1h34'15"	11447	Patxi Romero	1h50'47"
5379	Juan Luis Azkune	1h34'48"	11743	Arkaitz Mujika	1h51'59"
5567	Asier San Martín	1h35'14"	12008	Jesus M ^o García	1h53'04"
5599	Jon Cid	1h35'20"	12194	Carlos Balseiro	1h53'47"
5646	Javier Arriola	1h35'28"	12232	Gaizka Aranzabal	1h53'57"
5730	Martin Joaquin Arratibel	1h35'39"	12291	Iker Segovia	1h54'12"
6015	Aitziber Urkiola	1h36'22"	12434	Íñaki Ferreira	1h54'52"
6240	Rikardo Bastida	1h36'59"	12624	Alexander Zubizarreta	1h55'38"
6245	Xabi Bastida	1h37'00"	12844	Jorge Pérez	1h56'40"
6263	Miguel Angel Becana	1h37'02"	12897	Eneko Urain	1h56'58"
6639	Alberto S. Biteri	1h37'49"	12899	Unai Agirre	1h56'58"
6729	Ignacio Garai	1h38'00"	12963	Susana Martínez	1h57'17"
6875	Aitor Garro	1h38'20"	13082	Jon Carballo	1h58'00"
6877	Eduardo Donate	1h38'21"	13161	Irali Kortabitarte	1h58'27"
6903	Alberto Teresa	1h38'25"	13275	Jose Manuel Taboada	1h59'08"
6921	Eduardo Kapelastegi	1h38'28"	13278	Xabier Lete	1h59'09"
7148	Moises Altuna	1h39'02"	13665	Miguel Hernández	2h01'35"
7171	Esther Pagei	1h39'04"	13683	Igor Madariaga	2h01'42"
7235	Iker Iriondo	1h39'13"	13734	Josu Hernando	2h02'09"
7277	Sergio Alegre	1h39'18"	14017	Gorka Vega	2h04'37"
7472	Itoiz Martínez	1h39'49"	14281	Luis Etxeberria	2h08'07"
7696	Ane Ziaran	1h40'15"	14423	Javier Luengo	2h10'08"
7698	Javier Ziaran	1h40'16"	14657	Iker Etxeberria	2h15'13"
7736	Ignacio Arana	1h40'20"	14640	Idurre Albizu	2h15'14"
7802	Ion Zubiate	1h40'31"			

Rugbilarien porrota Unben

BUC BARTZELONAREKIN 0-28 GALDU ETA GERO, Hierros Anetxe Eibar Rugby taldekoek sailkapeneko azken postuan daude. Berrito epailea aurka izan zuten eibartarrek, horren adibide pitatu zizkien 21 zigor kolpeak. Zazpi baja garrantzitsurekin egin behar izan zioten aurre partiduari, baina hala ere nagusi izan ziren meleetan eta toutxetan. Bihar Oviedon izango dute lehenengo garaipena lortzeko aukera.

Irusta Euskadiko hiru-txirlo txapelkun


SAN MIGUEL BOLATOKIKO AGUSTIN IRUSTAK IRABAZI DU Euskadiko XX. hiru-txirlo bola txapelketa, txirlo baten alde aterata Antxustegi (Iruzubieta) eta Osorori (San Miguel). Asola-Berrin jokatu azken jardunaldian Juan Luis Rodríguez eibartarra izan zen garaile. Azken sailkapenei dagokienez, eibartarrak nagusi izan ziren emakumeetan, nagusietan eta bikotea.



Waterpolistak galtzaile Náuticarekin

URBAT-URKOTRONIKEKO JOKALARIAK NÁUTICA-MARISTAS BAINO GUTXIAGO IZAN ZIREN ORBEA KIROLDEGIAN jokatu Euskal Herriko ligako lehenengo partiduan. Domekan jokatuak neurketan, azkena kenduta (hor 5na berdindu zuten), beste partzial guztietan gehiago izan ziren bizkaitarrak eta 2-5, 1-2 eta 1-6 nagusitu ziren. Portugaletekoak goiko maila batetik jaitsitakoak direla erakutsi zuten eta eibartarrek amore eman behar izan zuten. Zapatuan Irunen jokatu du Urba tek bertako Oiasso-Bidasoa XXI taldearen aurka.

Azitainen garaipena areto-foballean



Ivan Fernández.

JUBENIL MAILAKO TALDEAK KONTZENTRAZIO HUTSUNEEKIN JARRAITZEN DU eta, horrela, normalean beharko lukeen baino zailtasun handiagoak aurkitzen ditu partiduak irabazteko. Oraingoan ere beste nahigabe bat izatekotan izan zen Zarautzen kontrako norgehiagokan, baina kostaldekoek ez zuten aukerak aprobetxatu eta eibartarrak garaile izan ziren 8-6.

Irudia. Itxura. Aparientzia. Look-a. Berba hori da, LOOK, gaur Coliseoan 20.30etan egongo den ikuskizunaren titulua. Pertsona batek ematen duen itxuratik norbera denaren hortara doan bidea lantzen du emanaldiak Asier Zabaletaren zuzendaritzapean. Irudiaren esklabutzaren garaia, azken finean.



ASIER ZABALETA, dantzaria:

"Irudiak garrantzia ikaragarria du gizartean"

- **Irudiaren gainean ari da Look ikuskizuna. Zein da bidali nahi duzuen mezua?**

Helburua ez da mezu zehatza zabaltzea, baizik eta guk lan hau osatzerakoan geure buruari egin dizkiogun hainbat galdera taularatzea. Guretzat beharrezkoa da ikuslearen partaidetza aktiboa. Horrek ez du esan nahi taulara igotzea eskatuko diegunik, baina tratatzen dugun gaiarekiko euren postura zehaztu edo gutxienez erreflexiora gonbidatu nahiko genituzke.

- **Gero eta garrantzia handiagoa dauka irudiak edo ez da hainbesterako?**

Garrantzia ikaragarria du. Askotan menpekotasun horren esklabu ez garela iruditu arren, edo konbentzioen kontra goazela, gehienetan beste moda zehatz baten menpe erortzen gara ohartu gabe.

- **Zeintzuk dira horren ondorioak?**

Bakoitzaren arabera larriak izan daitezke, pertsona bat duen itxuragatik sailkatzen dugulako eta askoren zorientasuna itxura zehatz bat izatearen kondiziopean garatzen delako.

- **Bideoa, dantza eta antzerkia erabiltzen duzue. Zein da lortzen duzuen emaitza?**

Emaitza erritmo biziduneko ikuskizun entretenigarria da,

ironiaz betetako umorearen bitartez denori dagokigun gai bat aztertzeko.

- **Arrakastaren seinale, hiru urte ibili zarete eszenatokitik eszenatokira. Nola ikusten duzue publiko eta kritikaren harrera zoragarri hau?**

Oso pozik gaude. Ez genuen espero horrenbeste emanaldi egitea, Euskal Herrian egiten diren dantza ikuskizun gehienek bizitza oso laburra baita. Baina Look-ekin, Euskal Herriko zirkuitoaz gain, estatuan emanaldi asko izan ditugu, jendeak oso gustora hartu dituenak.

- **Ikuskizunean dantzaria zara, baita zuzendaria, argazkilaria ere... Oso lan pertsonala da?**

Agian orain arte egin ditudan lanetan pertsonalenak bakarlanak izan dira, tratatzen dudana gaia neure ikuspuntutik tratatzen dudalako. Baina Look-en, hiru dantzari gaude, bakoitzak bere ikuspuntua ekarri du, eta horrek kolektiboagoa eta pluralagoa bihurtzen du.

- **Zertan esango zenuke igartzen dela zure zigilua?**

Agian gaia tratatzeko puntu ironiko horretan, edota lengoaien nahasketan ere izan daiteke. Ez dakit; hori beste norbaitek esan behar luke.




Eguraldi txarraren ondorioz, arkupean ospatu zuten Magosto jaia. / MAIALEN BELAUSTEGI

Magostoan ondoren Gaztañerre

AURREKO ASTEBURUAN BOTATAKO EURIK EZ ZUEN MAGOSTO JAIA ZAPUZTERIK LORTU eta, zapatu arratsaldean eta domeka goizean Urkizuko parkean egitekoa zen gaztainen inguruko jaia Galiziako Etxearen aldamenear, arkupeen babespean ospatu zuten.

Astelehena berriz, Gaztañerre eguna ospatuko da Eibarren eta, urteroko moduan, AEK Euskaltegiak horren inguruko ekitaldia antolatu du. Azken urteotan halako egunean herri-afaria antolatu izan dute, Orbea frontoian lehenengo eta,

ondoren, Armeria Eskolakoan. Hala ere, aurten ekimen berria prestatu dute: 'Ondra janak tabernaz taberna'. Euskaltegiok azaldu digutenez, "trikitilariekin kalejira eta afari-merienda antolatu dugu, gure ohitura zaharrei eutsi eta euskara zabaltzeko helburuarekin. 19.30-etan Paloma tabernan elkartuko gara eta hiru tabernatan geldituko gara, mokadutxo egiteko. Euskal kantak eta koplak ere abestuko ditugu, trikitilarien laguntzaz. Euskal giroan ongi pasatzeko gogoia duen edonor gonbidatu nahi dugu, gurekin bat egin dezan".



Antzerki eta bideo ikuskizuna

ERTZA TALDEAK 'LOOK' DANTZA, BIDEOA ETA ANTZERKIA UZTARTZEN DITUEN IKUSKIZUNA ESKAINIKO DU GAUR, 20.30etan Coliseoan (8 euro). Ordu bete pasatzeko iraupena duen lanean Pilar Andrés, Carla Fernández eta Asier Zabaleta dantzariak jardungo dute. Irudiak eta itxurak osatzen dute dantza ikuskizunaren ardatza eta, konpainiako kideek azaldutakoaren arabera, "jantz nazazu astiro, korrika eta presaka nabil eta. Presa dut ez naizen hori naizela adierazteko; edo naizena ezkutatzeko. Naiz, nago... Edo iruditu egiten zait, besterik ez? Itxurek, sarritan, engainatu egiten dute".



Su Ta Gar 20 urte zuzeneko lana kalean

SU TA GAR TALDEAK 2008-KO ABENDUAREN 26-AN DURANGOKO PLATERUENAN ESKAINITAKO ZUZENEKO EMANALDIAREKIN DVD eta CD bikoitza kaleratu ditu. 1988ko abuztuaren 14an lehenengo kontzertua eskaini zutenetik 20 urte bete ziren iaz eta, hori ospatzeko, iazko azaroan hasi eta aurtengo abuztura arte iraun duen 20. Urtebetetze Ospakizuna Bira burutu dute.


Durangon emandako kontzerturako emanaldi berezia prestatu zuen taldeak, gaur arte inoiz eskaini gabekoa: aspaldi jo gabeko kantak, gitarra akustikoak, pianoa... hori guztia soinu eta argi-muntai bereziarekin lagunduta.

Aire zabaleko pintura lehiaketa domekan

EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAK, UDALAREN BABESAREKIN, XXXII. AIRE ZABALEKO PINTURA LEHIAKETA ANTOLATU DU DOMEKARAKO.

Parte hartu nahi dutenek domekan bertan eman beharko dute izena, Portalean (museoan, 5. solairuan), 09.00etatik 11.00etara. Izena ematean aukera libreko gairen bat margotzeko baliokidien mihisea edo papera zigilatuegingo diete. Lanak 14.00etarako entregatu beharko dituzte,

Portalean. Epaimahaiak arratsaldean emango ditu ezagutzera irabazleen izenak. Lehiaketan jarraian aipatzen diren sariak banatuko dira: lehenengo geratzen denak Eibarko Hiriaren sari berezia (750 euro eta garaikurra) jasoko du, bigarrenak 500 euro, hirugarrenak 400 euro, laugarrenak 300 euro eta bosgarrenak 200 euro. Horrez gain, 15 urtera artekoentzat beste lau sari aurreikusten dituzte (90, 60, 50 eta 30 euro, hurrenez hurren).



Esther Galarzaren lanak Bartzelonan




GLOBAL ART GALERIAK (SANT EUSEBI, 57. BARTZELONA) URTARRILAREN AMAIERA ARTE hartuko duen erakusketa kolektiboan Esther Galarza artista eibartarraren 20 bat lan ikus-teko aukera dago, beste artista batzuen artelaneekin batera. Galarzak ikusgai ipinitako piezakeramiketan landutakoak dira eta artista hainbat teknikaz baliatu da, emaitza ezberdinak lortzeko asmoarekin.

Narruzko Zezen lehiaketa martxan

ANTZEZ ARTIKULU ETA GIDOIEN-TZAKO NARRUZKO ZEZEN SARIEN XXV. EDIZIOA MARTXAN DAGO. 25 urtetik beherako gazteek har dezakete parte lehiaketan, euskeraz zein gazte-leraz, antzez artikulua zein gidioak idatzita, bakoitzari adinaren arabera dagokion mailan. Lehiaketara aurkezteko azken eguna 2010eko urtarrilaren 22a izango da eta lanak honako helbidetan jasoko dituzte: Egoitza Zentroa (Hezkuntza Esparrua), Otaola Hiribidea, 29. Maila eta atal bakoitzeko hainbat sari banatuko dituzte.

GEMMA MONREAL ETA JAIRO BERBEL AMA-SEMEEN ERAKUSKETA ELGOIBARREN, KULTUR ETXEAN INAUGURATUKO DUTE azaroaren 20an,



19.00etan. Artista eibartar bien lanak aldi berean, erakusketa bakarrean ikusi ahal izango den lehenengo aldia izango da hau eta, gainera, orain dela gutxi hildako ama-amamari eskaini nahi diote erakusketa. Gemma Monrealek 30 margolan erakutsiko ditu eta Jairo Berbelek, berriz, 'Caminé por África' izenburupean Kongon egindako 12 argazki. Aben-

laburrak

BERTSO JAIALDIRAKO SARRERAK

Azaroaren 27an, 22.30etan, Portaleako areto nagusian San Andres Bertso Jaialdia ospatuko da, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta: Maddalen Arzallus, Miren Amuriza, Jokin Uranga, Ibai Esoain eta Amaia Agirre bertsolariek jardungo dute jaialdian. Sarrerak 5 eurotan salgai daude Kultu, Sagar-bitza eta Depor tabernetan.

1937-KOEN BAZKARIA

Bihar bazkaria egingo dute urte horretan jaiotakoek. 12.00etan Untzagan elkartuko dira, talde-argazkia ateratzeko eta, ondoren, 13.00ean piskolabisa egingo dute Peña Txinberan. 15.00etan hasiko da bazkaria, Arrate hotelean eta bazkalostean dantzaldia egongo da.



duaren 13ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, astelehenetik zapatu-
ra, 17.30etatik 21.00etara.

Imanol
Magro

Piratak


Nazio oso bat, irakurle aukeratu zein, kolpetik Somaliara begira jarri da. Atunontzi bateko kide guztiak, galiziar, euskaldun eta afrikarrak -bai afrikarrak ere badaude, europarrak baino askoz gehiago gainera- pairatzen diharduten kalbarioa urrundik jarraitu eta salatzen. Aldi berean, *Alakrana*-ren auziak, munduak ametitzen duen Somaliako status quo lotsagarriaz gain, beste zerbait erakutsi digu: legeak malguak dira. Eta hala izatea komeni da. Azken iruzkin hau nirea da. Denok dakigu bi uesteko bahitzaile Madrilen preso daudela egun, eta gobernuko lege adituak eurekin zer egin aztertzen ari dira egoera gehiegi gaiztatu ez dadin. Luze joko du, baina badirudi hasteko bidea Somaliako presoak Somaliara gerturatzea dela. Orain modu elegantea aurkitzea falta da, eta puzzleko piezak kokatzea. Aurrekoan presoetako baten abokatua Atzerri Legea-ren aukeraz mintzatu zen. Herrialde batean bere borondatearen aurka dagoen pertsona bati atzerri legea aplikatzea! Ipuruako aurrelari trebeenen ere ez luke horrela izkin egingo. Moraleja, baina, legeak egoeraren arabera alda daitezkeela da, eta komeni denean dekretuei 'aldaeintasunaren' geruza ken dakiekeela, zirrikituak bilatuz gaiztoturiko egoera bat konpontzeko. Presoak gerturatu, negoziatu, eta bake bidean herrialdeen arteko adostasuna bilatu. Zeri buruz ari gara? Ez da Somaliakoa bezalako muturreko egoera lazgarri eta krudelik behar antzerako errezetak aplikatuko.



Zezenzale eibartarrak Salamancan

URTERO EGIN OHI DUEN MODUAN, EIBARKO PEDRU-CHO ZEZENZALE ELKARTE- AK SALAMANCARA BIDAIA egin du aurten ere. Eibar Foball Taldeak lurralde horietan neurketa jokatzeko duenean bidaia- tzeke aprobetxatzen dute zezenzaleek, horrela, asteburu osoan zehar zezenaren munduko hainbat ekintza egin ostean, foball neurketaz gozatzeko aukera ere izaten dute Eibarko taldea animatuz.

Edizio batetik bestera zezen- hazkuntza ezberdin bat bisitatzeko txangora doazen zezenzaleek. Horrela, iaz Las Veguillaseko Charro de Llenera joan baziren, Tamamesko El Pilarra joan dira aurten. Aipatu, aurretik hamarretakoa egin zutela bidean, 07.00etan irten baitziren Eibartik. El Pilarren bisitan zehar landa-bazkaria egin zuten eibartarrek, zezen-hezitzaileen antzera.



Salamancara bisita aprobetxatu eta zezen-hazkuntza gertutik ezagutzeko aprobetxatu zuten.

Bazkalostean Salamancara bidean jarri ziren zezenzaleak, izan ere, bertako Hotel Partner Montalvon igaroko zuten gaua.

Guijuelo-Eibar neurketa

Lo egin eta gosaldur ostean Guijuelo izan zen hurrengo eskala bidaiarientzat. Hiru ordu eta erdiko bidaiaren ostean urdaiazpikoen herrira iritsi eta bazkaltzeko aukera izan zuten hango jatetxe batean. Eguna, hala ere, ez zen zezenzaleentzat amaitu.

Zezenketa baten faltan, Eibar Foball Taldea animatzera joan ziren txango parte-hartzaileak Guijueloren aurkako neurketan. Jokalari gorriurdinek euren zaleen txaloak jasotzeko aukera izan zuten eta ezin hobe esker- tu zien, izan ere, 0-1 gailendu zitzaizen salamankarrei.

Txangoak, beraz, amaiera aparta izan zuen zezenzaleentzat. Zezen-hazkuntza batek

nola funtzionatzen duen ikusi ahal izan zuten, landa-bazkaria egin eta bertako paisaiez gozatzeko gain, euren herriko foball taldearen garaipenaz gozatu zuten.

EUSKARAREN

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA SAREAN. Orotariko Euskal Hiztegia sarean jarri du Euskaltzaindiak eta Akademiaren webgunean kontsulta daiteke www.euskaltzaindia.net/oe helbidean. Orotariko Euskal Hiztegia sarean jartzeko, paperezko edizioaren prestaketan erabili ziren datutegiak oinarri hartu eta Internet bidezko zabalkunderako bertsio bi prestatu dira: bata, PDF formatuan, testu jarraitu moduan ordenagailura jaitxi daitekeena; eta bestea, web bidez, sarrera nagusiak bilatzeko aukera eskaintzen duena. Orotariko Euskal Hiztegiak euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du xede. 1987an argitaratu zen paperean lehen liburukia eta 2005ean azkena, hamaseigarrena. Orain Euskaltzaindiak sarean eskaintzen duen bertsio hau argitalpen elektronikoa- ren lehen urratsa izatea nahi luke Euskaltzaindiak, gerora hiztegiaren egituratze-maila osatugoa lortzea helburu izango duen proiektuaren abiapuntua.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ANA MARI, gaur urtiak betetzen dozulako. Besarkada haundi bat zure famelixaren partetik.




Zorionak, ARRATE Bergaretxe Astigarraga, bixar urtebete egingo dozulako. Muxu haundi bat famelixakuen partetik.




Zorionak, NAHIA, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa eta, batez be, gurasuen partez.




Zorionak, ENEKO Abanzabalegi Iriarte, gaur urtia betetzen dozulako. Muxuak etxekuen eta, batez be, Aretxen partez.




Zorionak, VICTORIA, gaur sei urte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixakuen partez.



Zorionak, IZARO Bastida Tejada, hareñegun urtia egin zenduan-eta. Muxu asko amatxo, aitaxo eta etxekuen partez.




Zorionak, IRUNE, astelehenian hiru urte egingo dozulako. Muxu haundi bat aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, ALAITZ, martitzenian urte bi egin zenduaz-eta. Aitaxo, amatxo eta famelixakuen partez.



Zorionak nire bizitzako azukre kokorrari. Muxuak Angelen partez.



Zorionak, BEGOÑA eta JOSEBA, hillaren 7xan 45 urte bete zenduazelako ezkondata. Jarraitu holan urte askotan!!! Etxekuen partez.

JAIOTAKOAK

- Ariane Muñoz Luque. 2009-XI-5.
- Koldo Pintado Herrero. 2009-XI-6.

HILDAKOAK


- Elias Jauregi Mendiola. 89 urte. 2009-XI-5.
- Juana Atxa Agirregomezkorta. 91 urte. 2009-XI-7.
- Esteban Mendizabal Guenetxea. 81 urte. 2009-XI-8.
- Marciala Irigoien Lazkano. 89 urte. 2009-XI-9.

zinea Coliseoan

13an, 22.00etan; 14an, 16.00, 17.00, 19.15, 19.45 eta 22.30etan; 15ean, 16.00 eta 20.00etan; 16an, 20.30etan

"2012"

Zuzendaria: Roland Emmerich
Aktoreak: John Cusack, Chiwetel Ejiofor, Amanda Peet, Oliver Platt...



Mendeak pasatu dira Maien zibilizazioak idatzita laga zuenetik. Lurraren desagertpena ekarriko duen eguna zein izango den esan zuten. Astrologo eta geologoak ados agertu ziren Maiek esandakoarekin eta 2012. urtea ailegatu da...

"Katyn"


Zuzendaria: Andrzej Wajda
Aktoreak: Artur Zmijewski, Maja Ostaszewska, Andrzej Chyra, Jan Englert...



1940. urtean 20.000 lagun hil zituen Errusiako Polizia Sekretuak. Hilketa horrek ez ziren publiko egin eta familiak zain izan ziren. Denborarekin familia horiek egin behar izan zuten lana ere ikusiko dugu, Errusiak ezkutaturakoa erakusteko...

"Cuento de Navidad"

Zuzendaria: Robert Zemeckis
Aktoreak: Jim Carrey, Colin Firth, Gary Oldman, Bob Hoskins...



Dickens-en ipuin ezagunaren bertsio berria egin dute. Scrooge gaiztoa da, langileak eta familiakoak ez ditu behar bezala tratatzen, baina eguberri egunean ezusteko bisita izango du eta bere bizitzeko modua aldatu beharko duela ikusiko du...

horoskopoa

ARIES

Nahiko gaizki egingo duzu lo hurrengo egunotan. Bueltaka ibiliko zara ohean, izan ere, zerbait burutik kendu ezinik ibiliko zara.

TAURUS

Asko gustatzen zaizu besteekin eztabaidatzea, arrazoi ez daukazula jakinda ere. Domekan norbaitek zure tokian lagako zaitu.

GEMINI

Mugitu eskeletoa! Hainbeste denboran geldituta egonik oxidatu egingo zara. Gorputzeko atalak koipetzeko ordua heldu da.

CANCER

Ez duzu gertatu zaizuna merezi, baina momentu txarrak oso gutxi iraungo du, izan ere, aste honetan bertan albiste oso on bat jasoko duzu.

LEO

Ezin duzu zure zain dagoen bat horrela utzi, itxaroten. Gutxienez aurretik abisatu, esan zer pentsatzen duzun, baina ez utzi horrela gaixoa.

VIRGO

Eskua luzatzen duzu eta besoa hartzen dizute. Nahiko inozoa zara, onegia, eta besteek zure ontasuna aprobetxatzen dute. Ez utzi!

LIBRA

Goenkaleko protagonistaren bat dirudizu. Denetarik gertatzen zaizu eta zure bizitzak kulebroi bat dirudi. Zein pertsonai izango zinateke?

SCORPIUS

Herensuge batek adina pozoi duzu. Nola izan zara kapaz lagun min bati horrelako gauza bat egiteko? Barkamena eskatu beharko diozu.

SAGITTARIUS

Erabakia seguru hartu baduzu, egin aurrera eta ez begiratu atzera. Seguru ondo iritetzen dela dena, baina konfidantza izan behar duzu.

CAPRICORNIUS

Argia zara eta egoera horri irtenbidea bilatuko diozu. Gainera, besteak ere zure berben zain egongo dira, badakitelako zu zarela konponbidea.

AQUARIUS

Bidaiatxo egitea komeni zaizu, deskonektatu. Nahiko lanpetuta ibili zara eta parentesia beharko duzu. Zure osasunak eskertuko du.

PISCIS

Zeren bila zabilta? Burua galduko duzu batetik bestera, lasai egon. Ondo begiratu al duzu etxean? Beti lagatzen duzun tokian begiratu.

Barixakua 13

BEHEKO TOKIA

17.30.- Beheko Tokia-ren XIV. urteurrena: kafesnea eta pastak.
18.30.- J.B. Gisasola Musika Eskolako abesbatza gaztearen eta soinu-joleen emanaldia. Beheko Tokia jubilatutik etxean.

MUNDUKO PAISIAIK

18.00.- Arabiar kaligrafia, henna eta te zeremoniaren inguruko tailerrak, SAFA emakumeen elkartearen eskutik. Liburutegian.

DANTZA

20.30.- 'Look'. Coliseoan.

Zapatua 14

BEHEKO TOKIA

12.00.- Beheko Tokia-ren XIV. urteurrena: meza, hildako bazkideen alde eta, ondoren, piskolabisa jubilatutik etxean.

1937-KOEN BAZKARIA

12.00.- Untzagan elkartuko dira, talde-argazkia ateratzeko.
13.00.- Piskolabisa, Peña Txinberan.
15.00.- Bazkaria eta dantzaldia, Arrate hotelean.

JUBILATUENDAKO ZINEA

17.00.- 'Pagafantas' (sarrera doan, Kutxako gonbidapenarekin). Ondoren, piskolabisa. Amaña Kultur Aretoan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz kalejira. Untzagatik hasita.

Domeka 15

PINTURA LEHIAKETA

09.00.- XXXII. Aire Zabaleko pintura lehiaketa. Izen-ematea eta mihiseen zigilatzea, Portalean (museoan).

KONTZERTUA

12.30.- Estazioaren mendeurren kontzertua (pasodobleak), Cielito Musika Bandaren eskutik. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'Vicky el vikingo'. Sarrera: 2'80 euro. Amañako Kultur Aretoan.

Astlehena 16

BERRIKUNTZA FOROA

14.30.- Merkatarienezat Berrikuntza Foroa. Portalean.

GAZTAÑERRE

19.30.- 'Ondra janak tabernaz taberna', kalejira trikitilariekin eta afari-merienda. Paloma tabernatik hasita.

ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA

20.00.- Lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Portalean.



Martitzena 17

IKASTEN

10.00.- 'Viajes a larga distancia: una visión diferente', Gloria Latasaren hitzaldia (Kutxarekin elkarlanean). EPAn (Isasi, 39).

URTEKO BATZARRA

19.00.- Armeria Eskolako Gurasoen Elkartearen urteko batzarra eta ikasle onenei sariak-ematea. Armeria Eskolan.

ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA

20.00.- Lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Portalean.

Eguaztena 18

ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA

20.00.- Lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Portalean.

Eguena 19

IKASTEN

10.00.- 'Historia del arte Barroco' (1. zatia), Satur Peñarekin. EPAn (Isasi, 39).

ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIA

20.00.- Lehiaketara aurkeztutako laburmetraien proiektzioa. Portalean.


DENBORAPASAK

SUDOKUA

	7	3			9	8
			9		3	
1			7			6
3	8				7	
5					8	1 4
		4		7	6	
4			8	6		7
2						3 6
7		1	4	3		2

6	7	9	4	2	5	1	3	8
1	0	4	3	0	7	5	2	6
5	2	3	6	1	8	4	9	7
8	4	1	2	5	3	6	7	9
9	3	6	7	4	1	8	5	2
2	5	7	8	6	9	3	1	4
3	6	8	1	7	2	9	4	5
4	9	2	5	3	6	7	8	1
7	1	0	9	8	4	2	5	3

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Azaroaren 15era arte

SOS ARRAZAKERIAren 'Geureak ere badira adingabe horiek' erakusketa. *Portalean.*

INDALEZIO OJANGUREN XXII. ARGAZKI LEHIAKETAko argazki erakusketa. *Portalean.*

ESTHER FERNANDEZ DE MARURIren margo erakusketa. *Topalekuan.*

- Azaroaren 30era arte

JOSE LUIS IRIGOIENen Marokoko argazkiak. *Liburutegian.*

ikastaroak

- Eramateko janaria prestatzeko ikastaroa.

Noiz: Azaroaren 17tik aurrera, martitzen eta eguenetan, 19.00etatik 21.00etara Portalean. Eskaerak: Azaroaren 13ra arte, Pegoran.

- Reiki (Hastapena).

Noiz: Azaroaren 28an eta 29an, Txaltxa-Zelaiako Reiki zentruan. Izen-ematea: 665743217 (Martin).

- Autodefentsa ikastaroa (emakumeentzat).

Noiz: Abenduaren 19an, goiz eta arratsalde, Ipuruako kiroldegian. Izen-ematea: Azaroaren 27ra arte, Pegoran.

lehiaketak

- Mendiko argazki lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Azaroaren 26ra arte, Morkaiko Elgoibarko Mendizale Elkartearen egoitzan edo morkaiko@morkaiko.net helbidean. Informazioa: www.morkaiko.net

- 18. Amodiozko Gutunen lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 7ra arte, Jardun Euskara Elkartearen (Errotalde jauregia z/g. 20.570 Bergara). Informazioa: www.jardun.net edo 943763661 telefono zenbakian.

- Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es

diru-laguntzak

NAZIOARTEKO LANKIDETZARENTZAT 2009.

Eskaerak: Azaroaren 18ra arte, Pegoran.

ELKARTASUN BEKAK 2009.

Eskaerak: Azaroaren 20ra arte, Pegoran.

UMEAK ESKOLARA 2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994-I-1etik 2003-XII-31ra bitartean jaiotako umeak. Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984-I-1etik 1993-XII-31ra bitartean jaiotakoak). Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

famaziak

13, barixakua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

14, zapatua

EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

15, domeka

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

16, astelehena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

17, martitzena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

18, eguaztena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

19, eguena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

20, barixakua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Asteleheneetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdire). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50etik 21.50era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdire. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55etik 21.55era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.15etatik 21.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Berriztuta. 26.900.000 pta. Tel. 659-687736.
- Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 68 m². Bizitzera sarzteko moduan. Tel. 675-700864.
- Zaldibarren pisua salgai. 90 m². Sarzteko moduan. 24.000.000 pezeta. Tel. 946-820458 edo etxeasal@live.com

1.2. Errentan

- Eibarren edo inguruan logela edo buhardila hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-784526.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokagai. Tel. 646-662911. Felicia.
- Logela alokagai Eibarren. Tel. 669-175981.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

- Otaola Hiribidean 60 m²ko lokala alokagai (emergentziazko-argiak, sutearen aurkako ateak, extintoreak...). Tel. 635-734261.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da autonomo moduan edo kontratuarekin orduka lan egiteko: garbiketak edo banaketak egiteko autoarekin. Tel. 605-800582. Alex.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979. Lourdes.
- Neska eskaintzen da 15.00etatik aurrera edozein lanetarako. Tel. 691-532893. Lizett.
- Neska eskaintzen arratsaldez umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Tel. 697-939085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako. Tel. 625-048037 edo 680-223378.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-273295.
- Neska eskaintzen da arratsaldez edo asteburuetan edozein lanetarako. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da astero bi egunetan orduka lan egiteko: nagusiak zaindu edo garbiketa lanak. Tel. 679-878676.
- Neska euskalduna eskaintzen da edozein garbiketa lanetarako. Tel. 687-114707.
- Erizain tituluduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 649-008036.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, garbitzaile edo zaintzaile moduan. Tel. 610-545505.
- Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan edo etxeko lanetarako. Tel. 943-108403.
- Mutila eskaintzen da autonomo moduan eraikuntzan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 605-800582.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979.

- Emakumea eskaintzen da 15.00etatik aurrera ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 691-532893.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 666-008974.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 619-176223.
- Mutila eskaintzen da kamioi, C eta garraio publikorako karnetekin. Tel. 663-656621.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-482478.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 697-702158.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez, gauz edo asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 699-653874. Cristina.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 664-881835.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da astelehenetik ostegunera goizez lan egiteko (kamarera moduan, garbitzen... Tel. 680-223378. Gina.
- Mutila eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-198411.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-250527.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu, pegorak garbitu edo baserrian lan egiteko. Tel. 648-196651 edo 652-047223.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 670-831279.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 608-147559.

- Gizona eskaintzen da astelehenetik ostegunera garbiketa lanetarako. Tel. 635-048037.

4.2. Langile bila

- Eibarko tailer batek administrazioarako langilea behar du. Tel. 943-707050 edo mail@industriasmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-254060.
- Andra euskalduna behar da nagusiak zaintzeko. Interna. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 649-167208.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 685-738435
- ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Akademia batean irakasleak behar dira: bat Matematikak eta Fisika eta Kimika emateko eta beste bat Ingeleserako. Tel. 652-763264 edo centrobart@gmail.com
- Neska euskaldunak klase partikularrek emango lituzke. Tel. 617-844142.
- Akademia baterako irakaslea behar da (Inglesa, Matematikak, Fisika eta Kimika, eskolarako laguntza). Tel. 652-763264 edo m.urteagamv@hotmail.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Autorako umeen silla bi salgai. Maxi-Cosi, 18 kilora arte. 60 euro bakoitza. Tel. 629-946467.
- Marmolezko mahai borobil txikia, edarientzako karrtoa eta eskritorioa (0'82x0'60) salgai. Tel. 647-840027.
- Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Tel. 616-801304.
- Ileapaindegiko altzariak salgai. Tel. 615-700184 edo www.ebay.es

6.3. Galdu/Aurkitu

- Ryder-en txanodun txupa marroia (poltisikoan giltzak zituena) galdu nuen. Tel. 663-512749.

Calbeton, 6

Girarik onenean

Kaskara

eskerrik asko
eibartarroi

8.
urteurrenean

azaroaren


20 an



Komunitate honen
ataria **berritzera** goaz

saldu
erosi
alokatu
bilatu
oparitu

...



TEORIK ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia
arriskutsuak**

C.A.P.

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78**

BERRIA: T. Etxebarria, 7 Tel. 943 70 23 84

GIDATZEKO KARNET GUZTIAK

SOLOZABAL

autoeskolak



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75